

ZORTZIKOA ETA EUSKARICHOA DONOSTIAKO

PLAZA BERRIKO METARRIYEN ASIYERARI, BERE SEME OTSAREZ BETEAK
MOLDATU, ETA KANTATUBAK ERRI BEREAN, AGORRILLAREN
AMAZAZPI GARREN GABEAN MILLA ZORZI EUN TA AMAZAZPI GARREN URTEAN



ZORTZIKOA

Egun konsolagarri
Zorionekoa
Amaseigarreneko
Agorrillekoa,
Neurritudana plaza
Donostiyakoa
Aztu bear dubena
Len erretakoa.

Atzo goiz beranduban
Donostiko erriyan
Ekusgarririk asko
Zan plaza berriyan,
Alkiyak ipiñirik
Inguru guztiyan
Agintariyak zeuden
Jarririk erdiyan.

An ziran Kabildo ta
Errege gizonak,
An ziran gure Junta
Obretako Jaunak,
Echegille nagusi
Agintariyenak
Ezpata danzari ta
Soñurik onenak.

Edertasun andi bat
Goizeko amaiketan
Zegoan jendezkoa
Leku guztiyetan,
Plazan eta kaleko
Eche berriyetan
Arri tarte, leyo zar
Pareta gañetan.

Arri urdiñ biribill
 Lenbizikoetan
 Atzo sartu dirade
 Plaza kantoyetan
 Paper eta dirubak
 Ontzi ederretan
 Noiz bait jakindediyen
 Ondorengoetan.

Ekarriko dirade
 Bereala arriyak
 Egiteko bertatik
 Pillare berriyak,
 Guztiz izango dira
 Sendo ta egokiyak
 Orpoetan urdiñak
 Gañean zuriyak.

Gero asiko dira
 Egiten echeak
 Ogei ta bosteraño
 Posible ez obeak,
 Berdintasunarekin
 Banasta gabeak
 Artuko dituztenak
 Plazan iru aldeak.

Konsejo echeak
 Beteko du urrena
 Gure plaza berriko
 Alde laugarrena,
 Zimenduak sendoki
 Egiñik aurrena
 Izango da erriko
 Lanik ederrena.

EUSKARICHOA

Oroipena gaur zuri
 Gure Donostiya
 Utzirikan alde bat
 Naigabe guztiya,
 Zuri gaur oroipena
 Zuri gure erriya
 Kanta ta danzatubaz
 Zortziko berriya.